## gaurkoan

*Joseba Tobar—Arbulu(*)*

# *Gorporazio handiak eta inperialismo berria*

Bigarren Mundugerlatik Estatu Batuak atera ziren munduko botere ekonomiko eta militar dominatzaile eta nagusitzat. Europearrek ezin desafiatu zezaketen botere amerikar hori, are gutiago alemaniarrek edo japoniarrek. Estatu Batuen nagusitasuna Bretton Woods-eko akordiotan formalizatu zen, non mundu kapitalistaren ekonomiarako arauak ezartzen baitziren. Dolarra errege bilakatu zen, New York-eko Wall Street mundu-zentrugune finantziarra bihurtu zen, une hartaraarte City of London delakoak eduki zuen lekua hartuaz, Nazioarteko Moneta-Fondoa eta Banku Mundiala White House edo Etxe Zuritik guztiz hurbil, zentzu ekonomikoan noski, zeudelarik.

1950etako azken urteetarako, Estatu Batuetako gobernuak eta gorporazio handiek nagusitu zuten merkatal sistima mundu kapitalistan zehar. Aldaketa hau ez zen etorrik ezerezetik, baizik eta bigarren Mundugerlak berak sortu zuen egituraldaketatik. Une hartako Estatu Batuetako ekonomia, kapitalista izanik ere, ez zen, beraren egiturari zegokionez, Lehen Mundugerlatik Bigarren Mundugerlarako epean ezagutu zen kapitalismoa bera. Gerlaondoko sistima gorporatibo hau egoera berritzat hartu behar da. Sistimak barneko koherentzia bat zeukan, *Depresio Handira eraman* zuen kapitalismo zaharrak ez zeukana, edo honela behintzat aurkeztu nahi izan zen Bretton Woods-en.

Entrepresa industrialen kontzentrapena aspaldiko kontua bada, kontu berria zera da, gorporazio berriak lehenagokoak berak ote diren, aldaketa bat egon ote den eta, baiezkotan, zein neurritan eta zein helburutan.

Lehen ezagutu ziren entrepresa internazionalak —*banku operazioak nazioarteko merkatalgoa* finantziatzeko entrepresak zein lehengai-entrepresak edo merkatal entrepresa handiak berak— eta gaurko nazioaskotako gorporazio modernoak ezberdin dira. Lehengo entrepresa multinazionalak herri aberats eta pobreen artean aritu ziren batez ere. Gaur egun, aldiz, nazioarteko gorporazioak, nahiz eta ez era exklusiboan, herri garatuen artean aritzen dira batez ere. Gorporazio modernoak saldu behar dituen produktuak ekoizten baititu. Egungo gorporazio handiak hornikuntza-iturrietara —dela petrolioa zein burdin-meatzea edo beste edozein lehengai— ailegatu eta beraiek menperatu behar ditu. Hola gostuak eta hornikuntza, biak, gorporazioen esku gelditzen dira. Arazoa, beraz, ez datza mozkin handiago bat irabaztean, baizik eta mozkin seguruago eta inolako arriskurik gabeko lortzean. Gorporazioa, tamainia handia lortzen duen arauera, merkatu-mekanismotik libratzen da. Berak prezioak ezartzeko, bere hornikuntza lortzeko eta produziten duena kontsumatzaileei saltzeko badauka eduki boterea.

*Imperialismo ekonomikoa merkatuaren* beharrari lotu ohi zaio, arrazoia esplotazioa eta mozkina izanik. Gaur egungo gorporazioen garapenaren motibaziorik garrantzitsuena, haatik, abantail bulegokratikoak lortzean datza -entrepresa erraldoi horien gidabulegokrazientzako boterea alegia. Gorporazietarako tamainia eta hazkundea erabat garrantzitsu dira, zeren beraiek gidabulegokraziari ematen baitiote mugagabeko babesa bere helburuak lortzeko.

Bigarren Mundugerlatik geroztik GATT delakoa (Arantzel eta Merkataritzari Buruzko Akordio Orokorra), Europako Ekonomi Elkartea, eta EFTA delakoa (Europako Truke Librearen Elkartea) sortu dira, eta nazioarteko tarifak desagertzeko ahaleginak egin dira. Saiook lurralde horietako gorporazioen beharrak isladatzen dituzte, ez inolako edo inongo entrepresa txikirenak. (Are gutiago lurralde horien herri tipien subirotasunak).

Ohizko nazioarteko merkatalgoan tarifek herri baten merkatu-sistima babestu zuten *beste herriak zeuzkaten abantailetatik. Inork* ez zeukan kanpotiko hornikuntzaren eta bera saltzeko prezioen kontrolik; tarifa egoki bat izan zen bide bakarra barneko merkatu-prezioan kanpotiko hornikuntzak ez zezala eduki ondorio edo eragin txarrik. Orain, berriz, entrepresa multinazionalaren garapenaz edozein herritara sartzen den kanpoko gorporazioak ez ditu prezioak gutitzen. Horrek berbera sartzen deneko oreka oligopolistiko babestailea apurtuko luke. *Beraren gastuak sartzen ari den* merkatuarenak baino beheagoak baldin badira, bertako entrepresek sartzen den gorporazioaren nazioan produzi dezakete edo nolabait molda dezakete bertan produzitzeko. Kondizio hauetan tarifak ez dira gehiago beharrezko. Oztopo bat bailirateke gorporazioetarako. Halaz ere, badirau oraindik nazionalismo ekonomiko berri bat Estatu Batuak, Alemania eta Japoniaren artean gure Mendebalde honetan. (Honek zera adierazten du, kapitalismo modernoa ez dela aurkeztu zen bezain koherentea.).

Nazioaskotako gorporazioa atzerrira joaten da produzitzeko eskulan merke dagoelako. *Honek Singapore, Taiwan, Hong Kong-eko* garapen industrial modernoaren zerbait adierazten du. Alokairu gutiagoko gostuekin batera erregulapen gutiago -poluzio eta kutsadura dela kausa- eta zerbitzu publiko eta aseguro sozialerako ezarpen gutiago egoten dira. Halaz ere, ez da kontsideratu behar eskulan merke baten bila denik garapen multinazionalaren bultzapen nagusia. Alokairu urriagoa faktore erabakikor balitz, Indian egonen litzateke orain produkzio guztia. Merke den eskulana trebatu gabekoa da halaber, eta gorporazio handiek beren produktuak produzitzeko eta saltzeko lanindar trebatua behar dituzte. Nazioaskotako gorporazio modernoarekin, kapitala, teknologia eta lanidar koalifikatu bat eramanten dira erakundearen barnean. *Ahalmen hori muga nazionaletan zehar hedatzen da.* Gauza bera gertatzen da kontsumitzaileak bereganatzearekin eta Estatutik behar den laguntza lortzearekin. Horrelako botereak ez dagozkie entrepresa txikiei eta beraiek funtzionatzen duten merkatu sistimari. Nazioaskotako gorporazioak eta beraien beharrak dira egungo herri garatuen arteko politika ekonomiarekiko giltza. Halaber, beraiek adierazten dituzte herri ezgaratuen protestak, zeren *entrepresa multinazionalek internazionaltzen* baitute edozein ekonomia modernoren bi sistimen garapen ezberdinetarako eta errenta desberdinetarako joera. Gorporazio multinazionalak herri garatuen artean aritzen diren bitartean, herri ezgaratuek merkatu-ereduari egokitzen segitzen dute oraindik. Beraz nazioaskotako gorporazio-sistimak egun garatu dagoen eta ez dagoenaren ezberdintasuna handitzen dute. Honela egiturazko desoreka gertatzen da mundu mailan, non Hirugarren Munduko herriak gero eta atzeratuago gelditaude. Herri ezgarauetako ezberdintasun ikaragarri horri aurreda eman behar zaio. Horretarako, beste gauza batzuren artean, nahitaezko hazkunde ekonomiko bat behar da.

(*) *Ingeniaritzan doktorea*

## zelatan

### *¡Abajo la UEU!*

UEU delakoak (Udako Euskal Unibertsitateak) merezimendu handiak ditu: frankismoaren garaian jaiota, hamabost urtez egin du lan. Lan gaitza eta eskergabea. Orain, berriz, arrisku larritan dago. Gobernatzen gaituzten «abertxo-psoecialistek» azkeneko ostiko batez akabatzea erabaki baitute.

UEU-ak betidanik egiten du dena euskaraz; eta argitara eman dituen liburuak ere (ehun bat testu, Unibertsitate mailakoak) euskara hutsez eman ditu. UEUak, bigarrenekorik, Vascongadak, Nafarroa eta Iparraldea ditu lan-eremu. UEUak, azkenik, militantziaz iraun du gehienik.

Urtero-urtero amaitu ohi da Larraona-eneko saioa zorrak nondik ordainduko ote diren beldurrak. «Euzko» instituzioek ez dute UEU «irrazional» hori maite. Nahiago dituzte kontsentsuak eta erdara batua.

Aurten mozorroa kendu dute. Bizkaiko Diputazioak argi-eta-garbi esan du hemendik aurrera ez duela sosik emango, alor hori Euzko Jaurlaritzarena delako. Euzko Jaurlaritzak orduan UPVari pasa dio pelota (Universidad del País Vasco vascongadoari, alegia). Eta UPVak desagertzeko eskatu dio UEUri. Ikastaro batzu Iruñean antolatu nahi baldin baditu, egin ditzala; baina UPVak ez duela beste unibertsitaterik finantzatuko, eta kurtso horiek UPVarenak izango direla.

Hots, UPVan nolako jarrera dagoen garbi gelditu da: kontratazio mailan, Zuzenbide Fakultateak publikoki salatua duenez, euskara ez da aipatu ere egiten. Eta euskaraz ikasteko aukera, egunero ikusten dugunez, mitoa da UPVan, Nafarroako Unibertsitatean eta gainerakoetan.

Hitz batez, kontsentsu eta paktoen izenean, disoluzioa, desagerketa eskatu zaio UEU-ri.

UEU kanpora! Eta honen ordez, zer? Berdin zaie, noski. Legetasunean sartua ez den oro, hil bedi!

TXILLARDEGI

## hemeroteca

### *Fracaso*

*(Vicente Copa, «El Correo Español», 13-2-88)*

Aducir, como hizo el PSE que de aceptarse la reunión se estaría dejando que ETA marcase el ritmo de los acontecimientos, es una argumentación estética y formalmente válida, pero materialmente confundida. Porque la organización terrorista ETA -siempre para mal- es el centro de atención, la preocupación constante y el conflicto permanente para el País Vasco. Y lo que más daño puede hacerles -aparte de las medidas policiales eficaces- es la observación de la uniad de criterio entre partidos, nacionalistas o no, en el País Vasco.(...)

La razón de EA para desmarcarse de la convocatoria del lehendakari es de las que entran en la política pequeña. Eusko Alkartasuna no respondió afirmativamente por temor a potenciar la imagen pública del presidente del Gobierno vasco e, indirectamente, de su partido, el PNV.(...)

Es grave, en fin, que los partidos políticos -en este caso EA y PSOE- no hayan sido consecuentes con lo firmado el 12 de enero pasado en Ajuria Enea.(...)Había razones suficientes para que ayer el almuerzo se celebrase y debió atenderse la convocatoria del lehendakari. No se hizo. Y, por lo tanto, lejos de haber resultado positivo, constituyó un fracaso en el proceso de consenso iniciado hace poco más de un mes.

### *Más allá de los disfraces*

*(Juan Ramón Beloki, «Deia», 13-2-88)*

Lo más fácil ya está hecho. PSE (PSOE) y EA han logrado que el lehendakari no se reuniera ayer con los seis partidos firmantes del Acuerdo para la Normalización y Pacificación de Euskadi. Independientemente de que consigan o no en el futuro otros objetivos políticos particulares, que ambos partidos han perseguido con esta renuncia, de momento cabe anotar en el haber de *ambos el que, cuando menos,* hoy existe un grado de entendimiento y de consenso notablemente inferior a anteayer entre los partidos políticos del País Vasco sobre la normalización y pacificación de Euskadi. Así es como estamos al día de hoy.

(...)La responsabilidad de ambos partidos es, sin necesidad de ponerse *trágicos, mucho más seria* y de más largo alcance que el que pudiera derivarse de la celebración o no de una reunión más, con comida o sin ella, en Ajuria Enea.

### *«El día después» en el País Vasco*

*(«Diario 16», 13-2-88)*

Las relaciones polítias en el País Vasco se han enrarecido en plena tregua de ETA. El pacto antiterrorista, tan laboriosamente alcanzado en medio del acoso de las metralletas, da síntomas de resquebrajamiento. Y el pacto de gobierno entre socialistas y nacionalistas se ve a la legua que es frágil y artificial.

Ha bastado un acontecimiento singular como ha sido la primera visita oficial de los Reyes de España a Navarra para que se viera la inconsistencia de una política común entre nacionalistas y no nacionalistas.(...)

Ls codazos que se ven ahora mismo en Euskadi obedecen al propósito de cada cual de situarse bien en la línea de salida. La pugna por el protagonismo político es manifiesta. Cuando cese la violencia nada será igual que antes. Los últimos forcejeos entre el PSOE y el PNV son lógicos en estas circunstancias tan especiales.




"Deia"